


## 2002-a ia 800 laguneko paroarekin bukatu da eta Hernanin % 9 inguru dago lanik gabe

■ Urte hasieran baino 19 pertsona gehiago daude paroan ■ INEM-n 1.167 pertsona daude apuntatuta.

IAZ langabeziak gora egin zuen Hernanin eta 2002ko abenduan 793 pertsona zeuden erabat lanik gabe, nahiz eta udaberrian jeitsiera handia izan. Portzentaiegi begirata, lan egin lezaketenen artean ehunetik bederatzidago lanik gabe, Ongintzako Lan Sailak emandako datuen arabera. Langabezi tasa % 7,6 da Elkarte Autonomoan.

Orain arteko joerari eutsiz, Hernanin ere langabetu gehienak emakumezkoak dira, 793tik 447, eta 346 gizona.



Langebezia tasa 1.5 puntu altuagoa da Hernanin EAEn baino.

INEMek hiru hilabetez behin ematen ditu herrietako langabezi datuak, eta Hernanin aurreneko hilabeteak izan ziren txarrenak. Mar-

txoan 846 lagun zeuden lanik gabe, aspaldiko gehiena.

Lanen bat izanda ere INEM-n apuntatu liteke, lan hobia edo osagarria bila-

tzeko. Urte hasieran 1.175 pertsona zeuden denera INEMen apuntatuta, eta orain 1.165. Irailean, berriz, 1.285 ere izan ziren. □

## Xalaparta elkarteak Angel Olanan misiolaria 'Hernaniar Bikaina' izendatu du, Afrikan egiten ari den lan humanitarioagatik

■ Xalapartak egin du urteko asanblea eta Joxe Mari Belegain izango da lehendakari berria.


XALAPARTA elkarteak Angel Olanan Esnal izendatu du aurtan *Hernaniar Bikaina*, orain dela gutxi egin duen Urteko Asanblean. Xalapartak sari hori ematen die beren lana eta dedikazioagatik nabarmendu diren hernaniarrei. Aurtan, Angel Olanan misiolariari eman dio Xalapartak, 30 urteotan Afrikan egiten ari den lan sozial eta humanitarioagatik. "Angel Olanen lan hori mundu osoan ari da nabarmentzen eta mundu osoaren errekonozimendua jasotzen ari da" dio Xalaparta elkateak.

Olanan Aita Zurioren Ordenekoa da. Afrikan ari da lanean eta 20 urte Tanzanian egintzen. Azkeneko 10 urteotan Etiopian ari da lanean miseria, gosea eta gaisotasunen kontra. Orain dela 15 egun, TVko *Informe Semanal* programan Olanari buruzko erreportaje bat bota zuten eta

Xalapartaren esanetan, barruak mogitzeko modukoa izan zen hernaniararen komentarioak entzutea eta lanean zer baldintza gogorretan ari den ikustea.

"Ibili den herrietako hizkuntzak eta ohiturak ikasi ditu Angel Olanek eta pertsona bezala onartu dute. Berak ere horixe nahi izan du beti" dio Xalaparta elkarteak. "Horretaz gainera, Olan eskolak egiten ibili da, eskolak, ur putzuak eta kanalizazioak, almazetak, errotak, mediku lanak, emagin lanak, proiektu berriak sortzen eta abar. Aparteko hernaniarra da Olan, eta heroea dela esan liteke, zer lan eta zer baldintzetan egiten ari den ikusita" dio Xalapartaren prentsa komunikatuak.

Hernaniar Bikainaren saria ekainean emango du Xalapartak, urtero egiten duen anibersarioko afarian.



Angel Olan hernaniarra Etiopian lanean.

### Junta aldaketa

Migel Urdangarin *Amancio* izan da Xalapartako lehendakari azkeneko bi urteotan. Lehendakariak bi urteko lan eta balantze ona ditu, eta orain Junta berri batek hartuko du Xalaparta elkarteak beste bi

urtean zuzentzeko lana. Lehendakari Joxe Mari Belegain izango da eta lehendakariorde Iosu Izagirre. Junta berria osatuko dutenen artean daude: Pello Elorza, Mikel Zuza *Manix*, Martin Etxeberria eta Agustin Almandoz. □

### ERREMONTA

## Altuna II-Etxabe Ezkurra-Urko, gaur

ALTUNA II eta Etxabek hirugarren bukatu dute Binakako txapelketako aurreneko buelta. Gaur bikote liderraren kontra jokatu dute Euskalen, bigarren bueltako aurreneko partiduan. Amezketarrak eta Hernanin bizi den azkoitiarrak lau partidutik bi irabazi dituzte, eta aurreneko postutik puntu bakarrera daude bi puntuarekin. Puntu berakin beste bi bikote daude, Altuna I-Eizagirre bigarren sailkatuta, eta Iñigo-Lizaso, laugarren. Azkeneko postuan, Zeberio II-Aizpuru dihoaz, puntu bakarrekin.

Bigarren bueltako beste partidua Galarretan jokatu da gaur: Zeberio II-Aizpuru/Altuna I-Eizagirren kontra. Jaialdiko beste partidua, 16:00etan hasita: Juaristi-Barrenetxea II/Larrea-Lander; Iñigo-A.Lekunberri/Matxin III-Lizaso; Sarasua-Aizpuru II/Agirresarobe-Badiola. □

### WATERPOLOA

## Askartza - Hernani,

EMAKUMEZKO ligan Hernanik Askartza talde bizkaitarraren kontra jokatu du gaur. Hernani hirugarren diho eta Askartzak baino 3 puntu gehiago ditu. Be-raz, hirugarren postuari ondo eustekotan Eba Pastoren neskak ezin dute huts egin. Partidua, 18:00etan.

Mutiletan, berriz, Hernani B taldeak Santurtzi Bren kontra jokatu du gaur, Bizkaian, 20:15etan. □

### BOLA

## Benta Berrin hasiko da Erregularitatea

BOLAKO Erregularitate Txapelketa bihar hasiko da Hernanin, Benta Berriko bolatokian. Txapelketa ia igandero izaten da, goiz eta arratsalde eta hamaika tiraldietara jokatu da aurtan. □

**Antziola-Motor**  
SALMENTA ETA TAILER ZERBITZUA

18 urte Hernanin, zuekin Ford-eko gama guztiarekin

Modelo guztiak

ANTZIOLA AUZOA 12 - Hernani - Tfnoa. 943 55 57 72  
Ordutegia: Asteazkera 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

**INFORMATIKA ARETOKO IKASTAROAK**

**Macromedia Dreamweaver 4.0**  
Otsailaren 10-tik 14-ra

**WINDOWS 98 + WORD 2000**  
Otsailaren 17-tik 21-ra

**EXCEL 2000**  
Martxoaren 3-tik 7-ra

**ACCESS 2000**  
Martxoaren 17-tik 21-ra

**WINDOWS 98 + INTERNET**  
Martxoaren 15-tik Apirilaren 5-ra

**Informazioa:**  
Larramendi 11, beheko. Tlf. 943 551000  
Ordutegia: 15-tik 21.30-ra (larunb. 9-tik 14-ra)

Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udaltzatutua

Europako Gizarte Funtzioa

**SAN OSO JATE TIXEA**

Leku atsegina Otordu atseginerako

Martindegi auzoa  
943 33 15 72  
943 55 32 60

**San Sebastian bezperako menu berezia:**  
Bellota urdaiazpikoa  
Xapoa eta ganbekin entsalada  
Almejak marinera erara  
Vichysoice  
Xapua refritoarekin  
Solomilloa plantxan guarnizioarekin, Postre degustazioa  
**Edariak:** Bezegain Crianza, Chivite rosado, ura eta Cava

**47 euro + %7ko BEZ eta jo tanborrak....**

## ■ FUTBOLA -GORENGOEN MAILA

### Hernanik gaur hasiko du bigarren buelta, denboraldi hasierako helburuetatik nahiko urruti

■ Anaitasunaren kontra jokatu du Azkoitian, 15:45etan ■ Denboraldi hasiera kaxkarra egin arren oraintxe hasi dira burua altxatzen ■ 14garren dijoa, 22 punturekin.

LEHEN buelta bukatu berri da Hernaniko Gorengo taldearentzat, eta bastante sufritzea tokatu zaio talde txuri berdeari, orain artekoan. Denboraldi hasierako helburua goiko postuetan ibitzea zen, hirugarren mailara igotzeko burruka horretan, baina, Ion Loran entrenatzaileak dionez pisu handia du lehen goian ibili izanak eta presioari eusten kosta egin zaio taldeari.

#### Tenplea falta

Ion Loran eta Ricardo Ramos lehendakaria bat datoz taldeak kalitatea baduela esatean. Aurtun falta zaiena betetaria pixka bat da bien ustez; alegia, kanpoan eta aldagelatan ekipoari aurrera egin araziko dion jendea eta momentu zailtan tenpleari eutsiko diona. Izan ere, plantila erabat gaztea du Hernanik, nahiz eta Loranen ustez iaiz baina konpentsatuagoa izan. Goian dabil-tzan taldeek jende gaztea bai, baina, betetaria ere badute eta hori nabaritzen omen da.

#### 'Ratxa' politean

Zailtasunak zailtasun, azken sei partiduetatik bakarra galdu du Hernanik, eta horretarak eman dio arnas pixka bat. Badirudi jokalarien aldartea ere hobera dijoala puntuak lortu ahala, eta bai entrenatzaileak eta bai lehendakariak uste dute oraintxe



**JON LORAN:**  
ENTRENATZAILEA  
"Taldeak bigarren buelta ona egingo duela konbentziturua nago. Ia 56 puntutara iristen garen"

Jon Loran entrenatzailea eta bankiltoa, partiduan kontzentratuta.

gingo duela gora taldeak. Loran optimista da eta denboraldia "56 punturekin bukatu baietz" bota du erronka. Gaur ez dute partidua erraza izango hala ere Azkoitian, Anaitasuna taldearen kontra. Anaitasuna bosgarren dijoa, eta hirugarren mailara igotzeko faboritoetan dago. Partidua Txerloan jokatu da arratsaldeko 15:45etan.

#### Zubipera buelta

Uholdeak ezker, Hernanik

etxetik kanpora jokatu ditugu partidua guztiak. Honek ere mesederik ez dio egin taldeari eta are gutxiago afizioari, partidua ikustera nekez mugitzen baita jendea Hernanitik kanpora. Ricardo Ramosek barkamenak eskatu dizkie sozio guztiei partidua kanpoan jokatu behar izanagatik, eta datorren aste-rako Zubipen jokatzeko saiatuko direla gaineratu du. Ramosek babesa eskatu die sozioei taldea gora ateratzen laguntzeko. □

## Ixa Aristimuñori ongi etorria egingo zaio gaur Tilosetan

IXA Aristimuño hernaniarra 27 urtez egon da errefuxiatuta eta gaur ongi etorria egingo diote Hernanin. Aristimuño eta beste errefuxiatu talde batek beren herrietara itzultzea erabaki du, besteak beste beren eskubidea dela adierazita. Ongi etorri ekitaldia 19:00etan da Tilosetan. Gero herri afaria izango da Xalaparta elkartearen. □

### ESKERTZA

#### Tomasa Goiburu Velez

Urtarrilaren 13an hil zen

Tomasaren senitartekoei eskerrak eman nahi dizkizuegu, egun hauetan gurekin egon zeratenoi eta hiletara etorri zineten guztioi.

GUZTIAGATIK ESKERRIK ASKO.

Hernanin 2003ko urtarrilaren 18an.

### ESKERTZA

#### Juan Jose Eraunzetamurgil Makazaga

Urtarrilaren 10ean hil zen Urnietan

Haren seme-alabak, bilobak eta senideek eskerrak eman nahi dizkizuegu, egun hauetan gurekin egon zeratenoi eta hiletara etorri zineten guztioi.

GUZTIAGATIK ESKERRIK ASKO.

Hernanin 2003ko urtarrilaren 18an.

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

- ☎ Taxiak: 943 550093
- ☎ Udaltzaingoa: 943 333288
- ☎ DYA: 943 464622
- ☎ Autobusak: 943 556662
- ☎ Anbulatorioa: 943 006666
- ☎ Jokalari anonimoak: 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

- ☎ Egunez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7 ☎ 943 552941
- ☎ Gaez: Gil Lasarte. Nagusia 24 ☎ 943 361529

### IRAGARKI MERKEAK

-Lizeaga kale inguruan GARAJEA erosiko genuke. Deitu: 609 543 900

-Kotxea salgai. Aixan 600, (konduzitzeko ez du karnetik behar). Deitu: 943-550847



Igande eta jai egunetan dantzaldia, 19:30etatik aurrera.

Bihar igandea:  
Laiotz

OIALUME BILTOKIA  
Oialume auzoa - 943 55 29 38

## KIROLA ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA				PELOTA			
Taldeak	Non	No iz	Ordua	Non	No iz	Ordua	Ordua
Gorengoak	Anaitasuna-Hernani	Txerri	Gaur 15:45	22 urtez azpiko txap. Kiroklegian			
Emakumezko Liga 1. Errejonala	Astena			A zagine-Oier Mendizabal/Landa-Jauregi, bhar 11:00etan			
Gazteen Liga Nazi	Hernani-Indartsu	Urniet	Gaur 17:45	Mendizabal/San Sebastian/Vicente Torres, bhar 12:00etan			
Gazteen Oherrezko	Hernani-Ostkas	Martutene	Bhar 15:30	Jaialdia Galarretan gaur 16:00etan hasita			
Kadeteen Oherrez	Hondarri-Hernani	Ondartza	Gaur 12:00	Juaristi-Banetxea II/Lana-Lander			
Kadete 2. Maila	Sto. Tomas-Hernani	Berri	Bhar 09:00	Zerubi-Elizpuru/Ahuna-Elizagine			
Haurren Oherrezko	Hernani-Herna	Urniet	Gaur 09:45	Iñigo-Alekunberri/Matx III/Lizaso			
ERUGBIA				Saasua-Aizpuru II/Aginosa-Berri			
Senior Liga Nazionala	Astena-Hernani	Aste	Bhar 12:00	Kronika Txapelketa Tilosetan, 16:00etan hasita			
Jubenilak Euskal L	Hernani-Berri	Zarauz	Gaur 16:30	Joseba-Baki/Mer/Tutu-Baki			
Kadeteak Euskal L	Hernani-Berri	Zarauz	Gaur 15:30	Urtzi-Ugaitz/Ker-Seigb			
WATERPOLOA				Urtzi-Ugaitz-Urtzi/Pablo-Fernando			
Euskal Liga, N	Hernani-Astena	Berri	Gaur 18:00	Leganeta-Ezeiza/Huiz-Villar			
Euskal Liga, M	Hernani-Berri	Kiroklegia	Bhar 13:00	Gaurkirolegian 17:00etan hasita			
Euskal Liga	Santurtzi-Hernani	Santurtzi	Gaur 20:15	Gipuzkoa Infan Fernandez de G-M uroz/Lizardi			
BOLA				Euskadikadete Aizpuru/Garzia			
Erregularitatea	Lehen taldea	Berri	Bhar 9:30	Euskadikadete Ezeiza-Gombategi/Oize			

### ESKEINTZA BEREZIAK

#### TENERIFE ra

joateko prezio ezin hobekak

Urtarrilak 27, 29 eta 30ean Bilbotik aterata)

Hotel Acuario \*\* MP 183 euro

La Paz Hotela \*\*\* MP 265 euro

Sol Tenerife Hotela \*\*\* MP 390 euro

+ TASAK (18 euro pertsonako)

7 gau (Pentsio erdia)

**HERNANI BIDAIAK**

Urbieta etorb. 6 - ☎: 943 330049 - 330174

e-mail: hernanib@teleline.es

Konponketa lanak direla eta, kalean beste aldean gaude, bolada baterako.

### Urdin

Poltza, lepoko, pitxi, lurrin eta abar

Italia eta Parisko azken moda, Olentzero eta erregeetako zure oparientzako.

**HASI DIRA MERKEALDIAK**

URDIN OSAGARRIAK

Montebideo kalea 1 - HERNANI -

# LUBER

## BIDEODENDA

Kardaberaz kalea 3, Hernani  
Tfna: 943 33 50 48  
Mobila: 635 71 72 12 (24h)

- Pelikularik berrienak (VHS eta DVD)
- Marrakiz bizidunak, Zinekluba...
- Sandwich hotz eta beroak
- Goxoki eta litxarkeriak

**Aukera bereziak Otsailaren 3 arte**

- 10 Euroko kargarengatik 4 dohan
- 15ekoagatik 7 dohan
- 20koagatik 11 dohan
- 30koagatik 20 dohan

**Ordutegia**

Astelehenetik igandera  
11:30etatik 21:00etara

**Gaurtik zabalik**



# Txotx denboraldia bihar hasiko da Hernaniko sagardotegietan

■ Hasiara ofiziala Olaizola anai-ek emango diote aurtengo Txotx denboraldiari, bihar Gudarien plazan, eguerdiko 11:30etan

■ Aurten iaz baino tenporada luzeagoa izango da normalean, Aste Santua beranduago baita.

■ Iaz ez bezala sagar urte ona izan da aurtengoa eta bertako sagarra asko erabili da sagardoa egiteko.

■ Txotx tenporadan Hernaniko tabernak, kafetegiak eta pub-ak ixteko ordutegi berezia onartu dute.

AURTENGO sagardotegi bolada ere iritsi da gurera, negua-rekin batean. Aurten, gainera, nahiko luzea izango da Txotx tenporada, Aste Santua apirilaren 17an baita. Sagardoak, hala ere, prozesu luzea du eta dagoeneko lan puska bat eginda daude sagardogileak: urri-azaroan sagarra bildu; garbitu, jo eta prentsatu; irakinaldian zaindu eta hemendik aurrera edan!

## Goizuetari omenaldia

Aurten hasiera ofiziala Hernanin ere emango zaio txotx garaiari. Asier eta Aimar Olaizola pelotariak egingo dute txotx, bihar goizeko 11:30etan Gudarien plazan. Horrekin batera, Goizuetako herriari omenaldia ere egingo zaio, eta sagardoa eta pintxoak izango dira plazan. Gero, bazkaria Eloorrabi sagardotegian. Hasiara ofiziala igandean izan arren, badira dagoeneko irekiak dauden sagardotegiak, eta beste batzuk beranduxeko zabalduko dituztenak ere bai.

## Sagar urte ona

Aurten, bertako sagarrarekin egin da sagardo asko, sagarra asko izan baita. Agian azukre gutxiagoko sagarra izan dela diote adituek, baina, sagardo politta etorriko dela eta iaz baino graduazio gutxiagokoa: 6° eskas. Sagardotegitik sagardotegira eta kupeletik kupelera alde handia egoten da baina jeneralean iaz baino azkarrago etorriko omen da aurtengo sagardoa. □



Argazkia: Alberto Elosegi

Iaz ere jende asko ibili zen txotx garaietan Hernaniko sagardotegietan. Herriko eta kanpoko jendea juntatzen da kupel buetan.

**ORDUTEGI BEREZIAK**  
Udalak, bizilagunek eta tabernariak hitzartu dituzte aurtengo txotx garairako tabernak ixteko ordutegiak:

■ **Urtarrilaren 17tik apirilaren 30era**, igandetik ostegunera: taberna eta kafetegiak 01:00-etan; taberna berezi eta pub-ak 02:30etan.

■ **Urtarrilaren 17tik 31ra eta apirilaren 13tik 30era**, ostiral larunbat eta jai bezperetan: kafetegiak 02:00etan; pub-ak eta taberna bereziak 03:30etan.

■ **Otsailaren 1etik apirilaren 12ra**, ostiral, larunbat eta jai bezperetan: kafetegiak 03:00-etan; pub-ak eta taberna bereziak 04:30etan.

**BASERRIKO SAGARDOA**

GOIKO LAITOLA

**SAGARDO NATURALA**  
Hernaniko Sagardoa

**OTSUA-ENEA**  
Osiñaga auzoa • Tel. 943 55 68 94 • HERNANI

Hernaniko Sagardoa

**LARRE-GAIN**  
Sagardotegia

943 55 58 46  
LARRE-GAIN BASERRIA • EREÑOZU - HERNANI

**ELORRABI**  
Sagardotegia

Osiñaga auzoa  
ELORRABI baserrria  
Tel. 943 336 990  
Mobila: 630 429 674  
20.120 HERNANI

**ALBERRO**

SAGARDO NATURALA  
tolare  
Hernaniko Sagardoa  
SANTA BARBARA auzoa  
HERNANI  
943 55 00 19

**OIALUME ZAR SAGARDOATEGIA**

Urtarrilaren 24ean zabalduko degu.  
Asteartetik larunbatera zabalik.  
OIALUME AUZOAN  
943 55 29 38

# “Aurtengo sagardoa hasieratik egongo da ondo edateko moduan, nahiko azkar dator-eta”

SAGARDO ona egiteak badu bere sekretua eta enologoak dira gero eta gehiago hemengo sagardoari segimendua egin eta gomendioak ematen dituztenak. Miguel Angel Saenz da sagardotegietan ibiltzen den enologetako bat.

■ **Nolako sagardoa dator?**  
Aurten hasieratik egongo da ondo edateko moduko sagardoa, nahiko azkar dator-eta. Gainontzean, azken urteetan baino sagardo suabexeagoa dator, sagarrari kosta egin baitzaio azukrea hartzea. Alkohola, berriz, 6º ingurukoa dakarki.


■ **Zer da enologo batek begiratu**

behar duena?  
Enologoaren lana sagarra kontrolatzetik hasten da. Kamioietan sagarra analizatzen dugu ea ekilibratua dagoen ikusteko, eta bestela, korrekzioen bat egiteko, sagardogileak nahi badu beti ere. Gero fermentazio garaian nahiko zorrotz kontrolatzen dugu sagardoa eta zer-bait gaizki baldin badijoa gomendioak ematen dizkiogu sagardogileei, sagardoak ekarri litzakeen desbiazioak konpontzeko. Hala ere, oso produktu kimiko gutxi botatzen zaio sagardoari, ez da ardoa bezala, eta horregatik zaindu behar da asko, defentsa gutxi duelako. Begiratzen ditugunak parametro kimikoak dira gehienbat; ph-a, polifenolak, azu-

kreak eta abar.


■ **Sagardoa zer preparatzen da botilan ala txotxetik edateko?**  
Botilatik edateko. Hala ere, txotxetik ondo edateko sagardoak egiten dira, apirila bukaera arte onak egongo direnak. Baina, tenporadan txotxetik asko tira diren sagardoak normalean binagretara joaten dira, ez baitira enboteiltzeko moduan egoten askotan. Oso gutxi tiratakoak dira enboteiltzen direnak, nahiz eta eszepzioak badauden.

■ **Asko entzuten da hemengo sagardoak gero eta antz haundiagoa duela Asturiaskorekin.**  
Bai, hala da, eta badu bere logika: gaur egungo reglamentuak azidez bajuak eskatzen ditu eta beste zenbait parametro ere igualak dira hemengo eta Asturiasko sagardoarentzat. Gero eta sagardo xuabeagoak egin behar dira eta hangoen antza haundiagoa dute. □



“Aurten sagar urte ona izan da eta sagardoaren % 45 bertako sagarrarekin egin da Gipuzkoan”

HERNANIKO SAGARDOTEGIAK	
<b>Akarregi.</b> Ireki urtarrilaren 19an	Akarregi telefonoa 943 55 34 95
<b>Alberro.</b> Ireki otsailaren 1ean	Santa Barbara telefonoa 943 55 00 19
<b>Altzueta.</b> Ireki otsailaren 1ean	Osiñaga telefonoa 943 55 15 02
<b>Eizmendi.</b> Ireki urtarrilaren 17an	Osiñaga telefonoa 943 55 64 05
<b>Elorrabi.</b> Ireki urtarrilaren 11ean	Osiñaga telefonoa 943 33 69 90
<b>Goiko Lastola.</b> Ireki Urtarrilaren 17an	Lastaola telefonoa 943 55 32 72
<b>Iparragirre.</b> Ireki otsailaren 1ean	Osiñaga telefonoa 943 55 03 28
<b>Itxasburu.</b> Ireki urtarrilaren 18an.	Osiñaga B telefonoa 943 55 68 79
<b>Larre-Gain.</b> Ireki urtarrilaren 17an	Ereñotzu telefonoa 943 55 58 46
<b>Oialume Zar.</b> Ireki urtarrilaren 24an	Martindegi telefonoa 943 55 29 38
<b>Otsua Enea.</b> Ireki urtarrilaren 17an	Osiñaga telefonoa 943 55 68 94
<b>Rufino.</b> Ireki urtarrilaren 27an	Akarregi telefonoa 943 55 27 39
<b>Zelaia.</b> Ireki urtarrilaren 21ean	Martindegi telefonoa 943 55 58 51



**TOLARE SAGARDOTEGIA**

**eizmendi**

*Maixa Eizmendi*

Osiñaga Auzoa - Tel. 943 556 405 - Mobila 616 450 380 - HERNANI

**ALTZUETA**  
TOLARE - SAGARDOTEGIA

*Asteartetik Larunbatera irekita*

Altueta Sagardotegia S.L.  
Osiñaga Auzoa, 7 • 20128 Hernani  
Tel./Fax: 943 55 15 02  
e-mail: altzueta@altzuetasagardotegia.com

**SAGARDOTEGIA**

**IPARRAGIRRE**

HERNANIKO SAGARDOA Osiñaga AUZOAN HERNANI

TEL. 943 55 03 28  
Otsailaren 1etik zabalik.

Asteazkenetik larunbatera. Larunbatetan eguerdietan ere bai.

**SAGARDO NATURALA**  
Hernaniko Sagardoa *tolare*

**JOSE IZAGUIRRE**

Tel. 943 553 495  
AKARREGI baserria • HERNANI (Gipuzkoa)

Hernaniko Sagardoa

**RUFINO**

*tolare* Sagardo Naturala

B.º Akarregi • Tel. 943 55 27 39 - 943 55 54 26  
HERNANI - Gipuzkoa

**ITXASBURU sagardotegia**  
Osiñaga - 943 556879

Pello Lopetegiren lan izugarria Berrogeitamar urtez hartara jarria Nahiz eta Donostian duen jatorria etxeko aiton egin da morroi etorria